



Trebakuntza 2009/01: ERDARAKADAK II

Udal idazki askotan erdarakadak sartzen dira; hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, espresioak eta abarrak euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo espresio jatorrak baztertuta. Aurreko hilabetean erdaraka batzuk ikusi genituen, eta hilabete honetan beste batzuk.

OHIKO AKATSAK

1. **Idazkariak bere iritzia eman zuen hirigintza baimenei buruz.*
2. **Udal langileek greba bat egin dute.*
3. **Ez du pena merezi puntu hori deialdian sartzea.*
4. **Bost hizkuntza ezagutzen ditu.*
5. **Ezagutzera eman ditu hurrengo lau urteetarako ildo nagusiak.*
6. **Beste barik, agurtzen naiz.*
7. **Biharko bileran ikusiko gara.*
8. **Realak galdu egin zuen, oso ondo jolastu arren.*



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko "*su opinión*" esamoldearen kalkoa da, baina berez euskarak ez du "*bere*" hori behar. Badakigu iritzia berea dena, ez beste inorena.

Ad. *Idazkariak iritzia eman zuen hirigintza baimenei buruz.*

2. Hau ere gaztelaniazko "*una huelga*" espresioaren kalkoa da. *Bat* zenbatzailea da, eta *bi* edo *hiru*-rengandik bereizteko erabili behar da; bestela, ez da beharrezkoa.

Ad. *Udal langileek greba egin dute.*

Izan ere, testuinguru gehienetan, zentzugabea da adieraztea greba bat egin dutela, eta ez bi edo hiru.

3. "*Pena*" hori sobran dago euskaraz, merezi erabiltzen badugu.

Ad. *Ez du merezi puntu hori deialdian sartzea*

4. Gaztelaniazko "*conocer*" esateko, euskarak bi hitz ditu: ezagutu eta jakin. Askotan, *ezagutu* erabiltzen dugu *jakin*-en lekuan, gaztelaniaren eraginez.

Ad. *Bost hizkuntza dakizki / hitz egiten ditu.*

5. "*Ezagutzera eman*" esamoldea gaztelaniazko "*dar a conocer*" horren kalkoa da. Euskaraz badauzkagu modu jatorragoak gauza bera esateko:

Ad. *Hurrengo lau urteetarako ildo nagusiak jakinarazi ditu.*



6. Gaztelaniazko "me despido" espresioaren parekoa da "agurtzen naiz", euskaldun zahar batek sekula esango ez lukeena.

Ad. *Beste barik, agur/agurtzen zaitut.*

7. Hau ere gaztelaniazko "nos vemos" esamoldetik hartua.

Ad. *Biharko bileran ikusiko dugu elkar.*

8. Kirola denean, edo lehia adierazi nahi denean, euskaraz "jokatu" erabiltzen dugu (pilotan, futbolean, musean...), eta "jolastu" umeez egiten dutenari deitzen diogu, adb., parkean jolastu.

Ad. *Realak galdu egin zuen, oso ondo jokatu arren.*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behe
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org